

AMALURRA OSATUZ

Ahaztu egin genuen...

Amalurrak berba egiten zigun, baña guk jada ez genion ulertzen. Hainbestetan begiratu genion gure zilberrari, esaten ziguna entzun ere ez genuela egiten, eta ahaztu egin zitzaigun Bere hizkuntza.

Kondaira zaharrek diote garai batean tribuak bazekiela lurra eta pertsonak zera beraren parte zirela, eta horregatik deitzen ziotela Ama; bere errailetatik sortuak zirela eta ordua iristean bere sabelera bueltatuko zirela. Horregatik ematen zioten eskerrak egunero Amalurrari; eta bere alaba Eguzkiari, bizi sortzaile zelako eta bere argiarekin izpiritu txarrak uxatzen zituelako. Eta eskerrak ematen zioten Ilargiari, Amalurraren sabelera bueltan joandakoei bidea argitzen zuelako.

Baina ahaztu egin genituen horiek guztiak...

Behin batean, neguko goiz batez, amandre zaharra herrira jeitsi zen ordura arte babesleku izan zuen mendiko etxola atzean utzita. Herriko zaharrenek kontatuta genekien, oraindik neska gaztea zela, amandre zaharrak erabaki zuela betirako mendian gelditzea, bere artaldea zainduz, jendartetik urrun. Bazela ere ahaztua geneukan ordurako, norbaiten gogoak noizbait sortutako asmakeria izango zela sinistuta. Ile urdindua motots batean bildua zekarren, eta denborak bere mapa marraztua zion azalean, erreken koloreko begirada zuen amandre zaharrari.

Plazaren erdian eseri zen, eta han egon zen luzaro. Helduenek mesfidati begiratzen genion, harriduraz, zertan ari ote zen elkarri galdezka. Baina bapatean, oinez ikasi berria zen haur bat gerturatu zitzaion, eta amandre zaharraren altzoan hartu zuen atsedean. Eta jarraian beste bat, eta beste

bat... herriko haur guztiak gerturatu zitzaizkion arte. Orduan amandre zaharra, lepotik zintzilik zekarren zorrotik makila sendo bat atera eta lurra kolpatzen hasi zen, pom, pom, pom... bere amaren amari aspaldian ikasitako abesti zahar baten doinua jarraituz. Haur guztiek lagundu zioten, abesten zuten bitartean oinarekin lurra kolpatuz. Elkarrekin, Amalurra neguko lozorrotik esnatzen ari ziren. Eta hala, amandre zaharraren eta herriko haur guztien bihotzak Amalurrarekin batera taupaka hasi ziren, pom, pom, pom....

Eta hala erakutsi zigun amandre zaharrak gainontzekooi ere, begiak itxi eta entzuten.... ahaztua geneukan hura bihotzetik pasa eta gogora ekartzen. Eta gonbidatu gintuen, urteko gaurik laburrenean, etxe atarietan sua piztu eta asmo txarrak, harrokeriak eta ezinikusiak bertan erretzen.... eta bertatik sortutako txinpartarekin aurrera egiten....; erreka urak nola, norberak gure bidea egin behar genuela bakoitzaren ozeanora iritsi arte; eta norbere desioak eta asmo onak esku ahurretan jarri eta putz eginez zabaldu eta gure ingurukoekin partekatzen.

Horrela gogoratu genituen, behinola ahaztutako haiek guztiak,... berriro ahaztuko ez ditugun esperantzaz.

Isabel Guridi gogoan

Dorleta Kortazar

Eskoriatzan, 2015eko ekainaren 29an

Liburutegian liburu bat duzu ikuskizunari buruz nahi duzuna idazteko: poesia bat, marrazki bat, esaldi bat, ipuin bat, hitz bat...